

Bost enpresa berri sortuko ditu Lan Berrik Alfe proiektuarekin

Zortzi emakume langabe enpresari bilakatzeko bidean dira

Hur Gorostiaga / Angelu

Urte bukaera aitzin, langabezian zeuden Ipar Euskal Herriko zortzi emakumek beren enpresa irekitzen ahalko dute Lan Be-

rri egituraren bidez. Hemen-Herrikoak, Ipar Euskal Herrian enplegu sorrerarako lanean ari diren bi elkarten formakuntza egiturak, Alfe deitu proiektuarekin erdietsi arrakasta azpimarratu du Peio Bellanek.



ANGELA MEJIAS

Alfe proiektuarekin langabezian zeuden zortzi emakumek euren enpresa osatzeko bidea hasi dute.

SERIGRAFIKO atelier bat, landetxe bat, zerutik argazkiak hartzen espezializatutako enpresa bat, niniendako material alogera eginen duen enpresa bat eta opari eta emakumeendako artikulak salduko dituen denda baten sorrera ospatzear dago Lan Berri elkarte. Urte hastapean, Alfe deitu proiektuarekin, enpresa bat muntatu nahi zuten emakumezkoendako ikastaldi berezietarako deialdia egin zuen Lan Berrik. Aitzin selekzio baten ondoren eta lau hilabeteko ikastaldi trinkoaren ondoren, zortzi emakumek beren proiektuak errealitate bilaka-

tzeko aukera izanen dute.

Peio Bellanek segurtatu du ekimenaren zuzendaritza, eta pozez agertu du xedearren arrakasta, «urte bukaerako, emakumezko horiek zuzendutako bost enpresa berriak izanen baititugu martxan».

Xedearren gauzapean hiru aitziniritzi azkar gaintitzen ahalko dituzte, langabezitik ateratzen ahal dela frogaturik, enpresa berrien sorrera posible dela erakutsirik eta emakumezkoek enpresa zuzendaritza berengain harturik.

«Enpresak sortzeko xedeak proiektu bilakatu ondoren, marketin, kontabilitate eta

enpresa kudeaketarako ikastaldiak antolatu ditugu proiektuan parte hartu duten zortzi emakumezkoendako. Ondotik, proiektuak findu eta hainbat enpresatan ikastaldi praktikoa egin dituzte. Egun, berriz, bost proiektu errealitate izanen dira luze gabe, eta enpresari bakoitzak bere enplegua segurtatzeaz gain, enplegu berriak ere sortzen ahalko ditu», zehaztu du Bellanek.

Hemen eta Herrikoaren laguntzarekin, Lan Berrik urtero aurkeztu ohi ditu proiektu berriak eta formakuntza baten ondoren enpresa bilakatzeko bidea irekitzen du.

laburrean

■ Bi euskal arrantzontzik irrati-balizak piztu behar izan zituzten atzo Frantziako aduanari non zeuden frogatzeko

GIPUZKOAKO Arrantzale Kofradien Federazioko presidente Jaime Tejedorrek atzo salatu zuenez, Espainiako beste hamar ontzirekin batera Gironako kostaldean atunetarako beita arrantzatzen ari ziren bi euskal arrantzontzi —Getariako Berriz-Irigoyen eta Ondarroako Lau Anaiak— aboratu zituen atzo *Lalagavian* Frantziako Aduanako lantxak, debekatuta duten sei milien barruan zeudelakoan. Hori egia ez zela frogatzeko, arrantzontziek euren irrati-balizak —larrialdi egoeratan soilik erabiltzen dira— piztu behar izan zituzten. Horren ondoren, aduanako ontziak alde egin zuen.

■ Langile bat zauritu zen atzo Iruñeko Areta poligonoan

SANAPLAS enpresak Iruñeko Areta industria poligonoan duen lantegian lan istripu bat jazo zen atzo goizaldean, eta, ondorioz, 35 urteko Joaquín D.S. beharginak buruan kolpe bat hartu zuen.

■ Mike Moore da MMEko zuzendari nagusi berria

ZEELANDA BERRIKO lehen ministro ohi Mike Moorek atzo hartu zuen Munduko Merkataritza Erakundeko (MME) zuzendari nagusi kargua. Bere sarrera hitzaldian herrialde pobreeni laguntzeko ahalegin handiagoa eskatu zuen Moorek. Seattleen (EEBB) azaroaren bukaeran egingo den konferentzian helburu hori bilatu ko duela azaldu zuen. Moorek David Hartridge ordezkaturiko du.

Daewook dio egingo duen proposamena sindikatuenetik «urrun» dagoela

■ Langileen diru eskaerak ez ditu aintzat hartuko

Agentziak / Gasteiz

DAEWOOKO zuzendaritzak ohartarazi du, Europa Press agentziari eginiko adierazpenean, sindikatuei eskainiko dien proposamena haien eskaeratik «oso urrun» dagoela.

Jundizen du lantegia Daewook, eta bertako langileak greba egiten ari dira lan baldintzak hobetzeko. Batez ere soldatak igotzea eskatzen dute, beste enpresetan kobratzen dutena baino askoz gutxiago jasotzen baitute Daewoon.

Enpresako iturriek adierazi dutenez, negoziazioa «zaila» izango da, batez ere greba egiten ari direlako. «Hauek ez dira konbenioa negoziatzeko erak», kexatu dira. Halaber, salatu dute enpresako sarrean piketeak daudela.

Greba hasi zenetik lehen harremana egin zuten herenegun sindikatuek eta enpresako arduradunek. Bileraren ostean zuzendaritzak jakinarazi zien aste honetan proposamen bat helaraziko diela. Hori dela eta, litekeena da gaur edo bihar biltzea berriro langileen eta enpresako ordezkariak.

Negoziazioa zaila izango da enpresak ez duelako langileen soldatak igotzerik nahi. Langileek, bestalde, eskatu dute soldatak %38 igotzea. Enpresak, ordea, pentsatzen du langileen ikuspuntua ez dela zuzena, eta onartuko balu «arriskuan» jarriko lukela hozkailuak ekoizten dituen enpresaren bideragarritasuna.

Mobilizazio kanpainarekin segitu zuten atzo, bestalde, langileek. Auto karabana egin nahi zuten, baina Ertzaintzak eragotzi zien bai menik ez zutelako.


Burtsa

• J.B. ANDUEZA •

TelefonicareKing Kong

KING KONG gorila bezala, bularrari kolpeka sartu zen Telefonica (+%0,99) atzoko saioan. Telekomunikabideen munstro indartsuak sei hilabetetan mila milioi euro irabazi dituela jakinarazi zuen, iaz baino %63 gehiago. Ibex-35ean %19ko pisua duenez, asko igarri zen hori, baina goizaldean batez ere, gero lasaitu egin baitzen hasiera-

ko poz handia. Bilbo bezala Europako gainerako burtsek ere irabaziak izan zituzten. Atzo jakin ziren zenbait emaitza (FCCk esaterako %156ko hazkundera aurkeztu du urte erdiko mozkinetan, 115 milioi euro) eta bezperan istripuak izandakoen erreku-perazioa ere aipagarriak dira (BSCHk +%2,21, BBVk +%0,55).



■ ZANGOTZAKO Viscofan (+%0,32) enpresak %33 gutxiago irabazi du lehen sei hilabeteetan, 11,5 milioi euro. Errusian eta Europa ekialdean zelulosaren salmentak jaistea izan da horren arrazoi.

■ ELF AQUITAINEK Sanofi-Synthelabon duen %15,5 saldu du, L'Oreal-ekin lortu akordioari jarraiki eta Totalfinarekin bat egiteko prozesuan laguntzeko asmoz.